

BETI GAZTE

ALDIZKARIA



BAZKIDEEI ZUZENDUTAKO SEIHILEROKO ALDIZKARIA

Urtean bitan bidaliko den eta klubak egiten duenari buruzko informazioa zabaltzen duen aldizkaria duzue hau. WhatsApp bidez jasoko da, era digitalean. Herriko hainbat establezimendutan ere aurkitu ahal izanen duzue paperezko formatuan. Irakurri eta informatua egon zaitez, kontu interesgarriak agertuko dira eta!



MUNDUKO TXAPELDUNAK!

Beti Gaztek, berriz ere, sokatirako munduko txapelketan garaipena lortu du. Klub arteko zein selekzioen txapelketetan urrezko eta zilarrezko dominak ekarri ditugu etxera. Zorionak tiralarieil!

ELKARRIZKETATUAK: LOURDES ETA MODESTO



UXURI PORTUK MUNDUA KONKISTATU DU

Hamar urte ditu bakarrik Uxuri Portuk eta aurten, Munduko Txapelketa konkistatzea izan du helburu. Urteko txapelketa guztiak irabazita, Mundukoan ere urrezko domina irabazi zuen taldeka eta bakarka, podiumetik hurbil gelditu zen.

GFF-ak BETI GAZTE SARITU DU

Gipuzkoako Futbol Federazioak "Gizarte Garapena"-ri saria Beti Gazteri eman dio.





BETI GAZTE SOKATIRA

WE ARE THE CHAMPIONS!

...of the world. Azken urrea Glasgown (Eskozia) lortu eta 19 urtera, Beti Gazte sokatira taldeak berriz ere Freddie Mercury handiaren ereserkia aditzeko aukera izan zuen, oraingoan Ipar Irlandan munduko klub arteko txapelkun izan ondotik. Mundu mailako garaipen handiaren soinuak eta argiak itzali eta pultsazioak jautsi direnean, Beti Gazteko gizon eta emakumeek lortutakoak balio duena azpimarratzea komeni da.

Izan ere, ez bat eta ez bi, bederatzi domina ekarri zituzten, horietatik bortz klub arteko txapelketatik eta bertze laurak nazioarteko txapelketatik, Basque Country, Euskal Herria ordezkatur. Klub arteko txapelketan, parte hartu zuten kategoria guztietako finalerara ailegatu ziren eta gizonezkoek urrea lortu zuten 560 kiloko kategorian eta bertze lauretan (emakumeak 500 eta 540 kilotan, gizonezkoak 600 kilotan eta mistoa), zilarra. Gainera, nazioarteko txapelketan, Basque Country 2014an ofizialki lehiatzen hasi zenetik, goma gainean Euskal Herriarentzat lehen urrezko domina lortu zuten Beti Gazteko neska-mutilek, kategoria mistoan gainera. Honi, emakumeek 500 kilotan eta gizonezkoek 600 kilotan lortutako zilarrezko dominak eta gizonezkoek 640 kilotan (bertze taldetako tiralari batzuen laguntzarekin) lortutako brontzea gehitu behar zaizkio. Kolore guztietako dominak.

“Pena” bakarra, behar bada, Beti Gazteko mutilek ezin izan zutela Basque Country ordezkatu 560 kiloko txapelketan. Izan ere, munduko klub arteko txapelkun kategoria honetan izan baldin baziren ere, aste batzuk lehenago Euskal Herriko txapelketako pisu honetako finala galdu zuten Laukizko Gaztediren kontra. Gero, klub arteko munduko txapelketan gertatutakoa ikusita (Beti Gazteko irabazi zion finala Gaztediri pisu arinean), hamargarren domina ekarri izanen zuten Lesakara, seguruenik urrezkoa.





MUNDUKO TXAPELDUNA!

Baina horrek ez du bueltarik eta Beti Gazteren palmaresean, klub artekoan, dagoeneko munduko borts txapelketa ageri dira, urrezko borts domina, eta zilarrezko eta brontzeko bertze hainbat. Mundialean 18 aldiz igo dira podiumera, kontuak ongi egin baldin baditugu. Gure kluba munduan bakarra da gizonezko, emakumezko eta misto kategorietan, hiruetan batera munduko txapelketako domina lortu duena. Eta bitan lortu du gainera, 2020an Letterkenyn (Irlanda) ere egin baitzuen.

Aurtengo mundiala, berez, 2022an jokatu beharrekoa zen, baina ezin izan zen egin, osasun egoeratik. Honek zer erran nahi du? Hemendik bederatzi hilabete eskasera, 2024ko otsailean munduko bertze txapelketa begibistan ageri dela, oraingoan Helsinborgen (Suedia). Hurbileko helburua da eta horrek errazago egiten du Beti Gaztek osatu duen blokea mantentzea eta berriz ere mundialeko podiumera igotzearekin amets egitea. Bertze helburu batzuk betetzeko gelditzen dira, ordenagailuaren aitzinean eserita idazten errazak direnak, baina goma gainean sokatiran lortzen hagitz zailak: Emakumeen taldeak brontzeko domina bat eta zilarrezko hiru lortu ditu azken bi mundialetan. Urrea bakarrik falta zaie. Talde mistoak ere gauza bera: brontzeko domina lortu zuen 2020an eta zilarrezkoa aurtan. Gaindiezina izanen litzateke hiru modalitatetan munduko txapeldun den klub bakarra izatea.

Hurrengo munduko txapelketa 2026an Txinan jokatu da. Hori urrun ikusten da, bai denboran, baita espazioan ere (eta ekonomikoki ere). Pausuz pausu joan behar da.

AITOR AROTZENA



EKITALDIZ BETERIKO

Maiatzaren 26an hasita ekainaren 5era arte ekitaldiz beteriko 2023ko Beti Gazte Astea izan genuen. Ehundaka herritarrek adin ezberdinetara zuzendutako jarduez gozatzeko aukera izan zuten, batzuk kirol esparrukoak, eta bertzeak kulturakoak.

Ezagutu Dezagun Lesaka lehiaketako sari banaketarekin ireki genuen Beti Gazte Astea. Egoitz Telletxeak aurkeztu eta Lesakako Soinulariek girotu zuten eta 68 haurrek parte hartu zuten. Hauxek izan ziren sarituak: Aitor Mutuberria, Enai Iribarren, Oihan Lasa, Irai Maritxalar, Libe Irigoyen, Eneritz Muñoa, Enara Ariztegi, Mikel Garcia, Urko Telletxea, Amets Lasa, Kemen Garro eta Jare Maia.



Hurrengo egunean, maiatzaren 27an, aurrebenjaminen lauko futbol torneoa izan genuen Mastegin eta Lerro Dantza eta Beti Gazte Kantari taldeen emanaldiak herrigunean. Horrez gain, udalak antolatutako Kultura Azokan ere izan ginena.



Igande goizean Iciar Mikelperizenarekin pintura tailerraren bukaera izan zen. Hamar margolari ttikik parte hartu zuten eta kategoriako lientzoak margotu zituzten. Hurrengo bi egunetan maila ezberdinetako futbol torneoa egin ziren Mastegin eta asteazkenean Ezpatadantzarien arropari buruzko tailer teorikoa izan zen. Arroparen jatorriari buruzko azalpenak, eta hauek egin eta moldatzeko oinarriko nozioak ere eman ziren.



BETI GAZTE ASTEA

Haurrentzako bizikleta jinkana arrakastatsu batekin hasi genuen ekaina. 90 haur inguru hurbildu ziren komentura bizikletarekin zirkuito eta jolasak egitera, baita bukaeran berendu goxo bat dastatzera ere.



Ortziralean, ekainak 2, haurrentzako Herri Kirolak Ezagutzen jardunaldia antolatu genuen. Adin ezberdineko haur mordoak hurbildu ziren Plaza Zaharrera lokotxak bildu, zaku lasterketa egin eta sokatiran aritzera.



Ekainaren 3an ospatu genuen Beti Gazte Eguna, ordu guziaz ekitaldiz josi ziren. Goizean zehar mendi irteera eta futbol partiduak izan ziren. Ondotik, eguerdi partean, Lesakako Erraldoi eta Buruhandiak ibili ziren kalez kale gaiteroen laguntzarekin. 14:30ak inguruan, Beheko plazan elkartu ziren zuzendaritza batzordeko kideak, laguntzaileak, jokariak, dantzariak eta jostunak, bertzeak bertze, urteko bazkide bazkarirako. 150 mahaikide elkartu ginen okasiorako.

Arratsaldean futbolari eta tiralarien Erregularitasun sariak banatu ziren, taldekideen artean izendaturiko kirolari erregularrenari. Ondorengo hauek izan ziren sarituak:

- Emakumeen Ohorezko Erregional mailan: Paula Artieda
- Gizonezkoen Ohorezko Erregional mailan: Iñigo Zuzaya
- Gizonezko Jubenilen Euskal Liga mailan: Iosu Zubieta
- Emakume tiralaria: Ane Gurrutxaga
- Gizonezko tiralaria: Unai Gurrutxaga



Egun borobilari bukaera emateko, Gabezin taldearen emanaldia izan zen Plaza Zaharrea.

Igandea ere, ekainaren 4a, ekitaldiz betea izan genuen. Goizean zehar "Elias Garralda" Margo Lehiaketa eta Argazki Rallyko parte hartzaileak karrikaz karrika ibili ziren Lesakako bazterrak margo eta argazkietan irudikatzen. Arratsaldean Margo Lehiaketako sari banaketa izan zen, baita Beti Jauzi Muxiko Taldearen emanaldia ere.



GORA BETI GAZTE!



UXURI PORTUK MUNDUA KONKISTATU DU

Ekainaren 5ean bete zituen hamar urte Uxuri Portuk eta aurten, Munduko Txapelketa konkistatzea lortu du. Urtarriletik, Kopa eta Nafarroako eta Espainiako Txapelketak irabazi ditu. Horrez gain, uztailaren 14tik 16ra, Munduko Txapelketa lehiatu zuen Duranan (Araba) eta urrezko domina irabazi zuen taldeka.

Sei urterekin eskuratu zuen lehen garaipena Uxuri Portuk. Taldeko kirolak gustuko ez, eta bakarka hasi zen bizikletarekin entrenatzen. Hala ere, bere ondoan izan du beti atta, Alejo Portu, kirol hau probatzera animatu zuena. Alabak gogoz hartu zuen bizikleta eta geroztik, lanean aritzen da egunero lorpenak pilatzen. Lizarrako klub batean hasi zen, baina aurten Beti Gazte izenarekin lehiatzea erabaki du.

Pasa den denboraldian Munduko hirugarrena izan zen eta aurten koska horretatik aritu da bigarrena eta lehenengoa begira. Helburu hori lortzeko, hainbat pausu eman behar izan ditu aitzinetik. Hasteko, Kopan lehenengo bortzen artean sailkatzea. Hori lortu ez ezik, Portu Kopako irabazlea izan da aurten, 9-11 urte arteko kategorian. Azken probara bigarren postuan iristea lortu zuen. Kopa bereganatzeko, hau irabazi beharra zuen eta horrela egin zuen.



Nafarroako Txapelketa irabaztea izan zen hurrengo erronka. Egun bakarrez aritu zen lehian eta garaipenarekin bueltatu zen etxera. Azkenik, ekainaren 10ean Espainiako Txapelketa ospatu zen Caspen (Aragoi), jardunaldi bakarrean, eta bertan ere, garaile suertatu zen Beti Gazteko txirrindularia.

Mundua konkistatzea falta zitzaion soilik Porturi eta San Ferminen ondotik horretan saiatu zen. Uztailaren 14tik 16ra Munduko Txapelketa ospatu zen Duranan, etxetik hurbilago. Pasa den denboraldian, Poloniara bidaiatu behar izan zuten atta-alabak lehiaketa berean parte hartzeko. Esperientzia ederra izan zen, biak elkarrekin pilatzen ari diren guziak bezala, eta brontzezko domina poltsikoratuta bueltatu ziren. Aurten, taldeka Munduko txapelduna izan da lesakar gaztea eta bakarka berriz, hurbil eduki du podiumeko hirugarren koska. Laugarren sailkatu zen azkenik, denboraldia bikain borobilduta.

Beti Gazteren izena bigarren aldiz aditu da aurten mundutik barrena, eta bertze behin berri onekin lotua izan da, baita txapeldunekin ere. Aupa Uxuri!

GIZARTE GARAPENENKO SARIA BETI GAZTERENTZAT!



Ekainaren 9an, Andoaingo Manuel Lekuona kultur etxean, Gipuzkoako Futbol Federazioak antolatutako II. Gipuzkoako Futbol Sarien galan, Beti Gaztek "Gizarte Garapeneko" saria jaso zuen. Elkarteak kirola, kultura eta herrigintzan egiten duen lanagatik saritu ziguten. Antolatzen diren ekintza eta ditugun talde kopurua eta hauen aniztasuna goraiatu zituzten eta jorratzen ditugun alor ezberdin guztiak azpimarratu ziren galan. Horrez gain, elkartearen alde lan egiten dugun bolondres sare guztia zoriondu zuten.

Zuzendaritza Batzordeak Gipuzkoako Futbol Federazioa gure lana aitortzeagatik eskertzen du eta Beti Gazteren alde lan egiten duzuen guziei: zorionak!!
AUPA BETI GAZTE!

BURGOSEKO MERINDADEETARA BIDAIA

Beti Gazteko Irakurketa Taldetik ateratako ekimenari esker, Burgoseko Merindadeetara bidaia antolatu zen taldekide diren zein ez direnentzat.

Irailaren 12an abiatu ziren autobusez eta hiru egunez hainbat herri bisitatzen ibili ziren 38 bidaiari.

Bertzeak bertze, Puente de Ojo Guareña eta Frias herriak bisitatu zituzten.



LASTERKA

Beti Gazte Lasterka taldeak bere zaletasuna zabaltzen jarraitzen du, hainbat bazkide herrian zein herritik kanpo egiten diren lasterketetara hurbilduz. Herrian bi lasterketa froga antolatzen ditu Beti Gaztek: Mendi Lasterketa eta Zubigaineko Krosa.

Mendi Lasterketaren IV. edizioa martxoaren 12an izan zen eta 214 lasterkari inskribatu ziren frogan. Loli Pardal eta Mattin Gonzalez izan ziren lehen bazkideak eta Ruben Adan eta Maria Ordoñez lasterketako irabazleak.



Zubigaineko krosaren IV. edizioa uztailaren 1ean izan zen. Herrian barrena pasatzen den lasterketan lehia politak ikusi genituen. Hauexek maila ezberdinetako irabazleak: Unax Maia, Mirari Muñoa, Aitor Mutuberria, Eneritz Muñoa, Oihan Iturbide, Enara Ariztegi, Julen Castro, Gwendal Larque, Loli Pardal eta Adrian Gajate.



MATTIN GONZALEZ, mendizale amorratua eta trail runningean aditua den bazkidea

Urtean zehar hainbat mendi lasterketetan parte hartzen du Mattinek, baita Lesakako Mendi Lasterketan ere, noski. Martxoaren 12an izan zen azken edizioa eta bazkide guzien artean Mattin izan zen garaile. Mendia aunitz gustatzen zaiola eta **“mendiarekin lotutako edozein aktibitateetan”** gustora parte hartzen duela aipatu digu.



Lesakako Mendi Lasterketa konkretuki **“hagitz gustukoa”** omen du eta **“ederki antolatua”** egoteaz gain, herrian **“giro ederra sortzen”** duela pentsatzen du. Halere, aurtengoan **“Unanuko kaskoan txarangaren falta”** sumatu du. Izan ere, parte hartu izan duen bertze lasterketetan ere zuzeneko musika izaten da, **“Kamile xtremen txalaparta jartzen dute mendian galdua”** eta **“valle de Tenan gaitero bat izaten da Garmo Negroko kaskoan”**. **“Horrek lasterkariari izugarritzko indarra ematen”** diola aitortu digu.

Beti Gazte Lasterka taldea denboraldi hasieran **“elkartu, urteko lasterketa batzuk aukeratu eta egutegi bat osatzea”** gustatuko litzaioke, **“lasterketa horietan Beti-Gazte bezala parte hartzera juateko eta elkarrekin disfrutatzeke”**.

FUTBOLA

2022-2023 denboraldia arrakastatsua izan da futboleantzen ere Beti Gazterentzat. 12 talde iskribatu dira Gipuzkoa zein Nafarroako futbol federazioetan, eta 200 jokalaririk inguruk izan dute futboleantzen arituz gozatzeko aukera. Emaitzak onak izan dira maila guzietan, zelaian gure koloreak harrotasunez defendatzeaz gain, kiroltasunez ibili baikara partiduetan, santzio guttietatik dituen klubak izatea lortuz. Elkartearen filosofian garrantzi handiko balioa da kiroltasuna, errespetua eta berdintasunarekin batera entrenatzaile eta jokalarien artean zabaltzea berebizikoa dena.

Heldu den denboraldira begira, baditugu berriak: gizonetako kadete mailan dagoen jokalaririk kopururik handiagatik, 2023-2024 denboraldirako bi talde aterako dira eta infantil txiki taldea sortu da.



Horrez gain, emakumezkoen futbola indartzeko apustua egingen du Beti Gaztek aurtengoan. Gaztetxoentzat orain arte lehiatu ez den maila batean bi talde iskribatu dira Nafarroako Futbol Federazioan, guztira emakumezkoen lau talde izanen ditugularik: 2 alebin-benjamin, kadete-infantil eta ohoretako erregional taldea. Neurri honekin ahalik eta emakume gehienek futboleantzen aritzeko aukera izan dezatela eta emakumezkoen futbolari garrantzia ematea lortu nahi izan da.

IOSU ZUBIETA, 2022-2023 denboraldian Jubelineen Euskal Ligan Beti Gazteko kapitaina

2021-2022 denboraldian mailaz goitza lortu zutenean, maila berrian aritzea **"ilusio handiarekin hartu"** zutela adierazi digu losuk. Talde gaztea izanik, **"hiri handietako talde hagitik prestatu eta onen aurka"** aritu dira urte osoan eta gogorra izan den arren, **"Euskal Ligan egotea esperientzia ona"** izan dela eta **"aunitz ikasi"** dutela argi utzi du.

Partiduen emaitzek urtea gogorra egin badute ere, taldearen arteko elkartasuna eta umorea ez omen dute galdu. **"Denak ahalik eta gehien disfrutatzen saiatu"** dira eta orain denboraldia hasi zutenean **"baino talde hobea"** direla ikusten du.

Segidan hasiko duten denboraldi berriari begira **"pasa den urteko esperientziaz baliatu eta lan ona egitea espero"** du losuk. Taldeari **"beheko mailatik goituko diren futbolariak seguro ongi etorriko"** zaizkiola iruditzen zaio.



TXIRRINDULARITZA

Maiatzaren 6an Lesakatik pasa zen Bidasoako Itzulian eta ekainarean 1ean pasa zen Done Pedro Sari Nagusian, bidegurutzeak kubritzen lagundu zuen elkarteak. Boluntarioei esker ederki joan ziren lasterketetako Lesakako zatiak.

Maiatzaren 14erako aurreikusia zegoen "Salvador Yanci" martxa zikloturista bertan behera gelditu zen eguraldi txarragatik.



BTT

Irailaren 17an, igandean, urtero antolatzen den BTT ibilaldia izan genuen. 143 txirrindularik eman zuten izena frogan eta horietatik 138k parte hartu zuten.

Bi ibilbide egiteko aukera bazen: motza 23km-ko luzera eta 770m-ko desnibelekoa eta luzea 37km eta 1.400m-ko desnibelekoa.

Giro ederra izan zen herrian goiz guzian zehar.




SOKATIRA

2023an munduko txapeldunak izateaz gain, Nafarroa eta Euskal Herriko txapelketetan hainbat txapel eskuratzea ere lortu dute Beti Gazteko tiralariek. Aupa zuek!

AINHOA UBIRIA, munduko txapelduna

Beti Gazte sokatira taldearekin urte batzuetan emaitza bikainak eskuratzen ari bagara ere, 2022-2023 denboraldia guztiz paregabea izan da. Urtero bezala, urrian hasi zuten **"denboraldia Nafarroko 8x8ko txapelketarekin eta ondotik Euskal Herriko 4x4ko txapelketan parte hartu"** zuten. Bi txapelketetako kategoria guzietan garaile izan ziren. Segidan, Euskal Herriko 8x8 txapelketa irabaziz, mundialean Euskal Herria ordezkatzeko pasea lortu zuen Beti Gaztek.

"Euskal Herrian lortutako emaitzak ikusita, taldekide guztiak gogotsu eta motibatuta joan" ziren munduko txapelketara, baina Ubiriak ez zuen **"inondik ere espero horren emaitza onak lortuko"** zituztenik.



MENDIA

San Antongo erromeri egunean, urtarrilaren 21ean, azken urteetan bezala ibilaldi arautua antolatu zuen Beti Gaztek. 72 mendizalek parte hartu zuten, bikote eta hirukoteetan elkarturik.

Taldetxo guzien denbora hartu zen eta batzuetarako kalkulatutako ondorengoak, hauek suertatu ziren irabazleak:

Irabazleak: Markel Erkizia, Jon Ander Ruiz eta Aritz Aramberri

Bigarren postua: Ninbe Urtxegi eta Lide Igoa

Azken hilabeteetan ondorengo mendi irteerak egin dira: abenduak azken egunean Mendaur, urtarrilean Larun, otsailean Aialde, martxoan Xabier, apirilean Larun, ekainean Agiña, uztailean Pirinioak, abuztuak Larun eta Artikutza.



Irabazitako dominak Beti Gazte zein Euskal Selektioarentzat hagitik garrantzitsuak izan badira ere, Ainhoa bertan bizitako esperientziak gozatu izanarekin gelditzen da, **“ezin hitzez adierazi!”**.

Heldu den denboraldiari begira, **“urrian berriz txapelketekin hasiko”** dira eta **“otsailean Suedian”** izanen den mundialean parte hartzeko gogotsu daude. Halere, ez da kontu erraza izanen **“lan kontuak tarteko, taldekide nahikoak elkartzeko aukera aztertu beharko”** dute, baita **“ekonomikoki guztia ordaindu ahal izanen ote”** duten ere. Aurrekoetan bezala, tiralari eta elkarteak dirulaguntza eta babesleak bilatuz, seguro bidea lautzea lortzen dela.

Mundialeko garaipena eta urtean zehar lortutako emaitza onak lagundurik, **“badago entrenatzeko interesa erakutsi duen jendea eta batzuk entrenamenduetara etortzen hasiak dira, gogo haundiz, gainera”**. Aurtengo lizentzia kopurua handixeagoa izatea espero da eta pixkanaka gazteak herri kirol munduarekin duten interesa handitzen joatea.

JOSKINTZA

Abenduan lehen hiruhilekoa bukatu ondotik, martxoan berriz ere burubelarri murgildu ziren tailerrean Beti Gazteko jostunak. Hiru taldeetan banaturik, astean behin elkartzen egon dira martxoa eta ekaina bitartean.

Horrez gain, hainbat ikastaro eta ekimen antolatu dira: Eguberrietan Errege Magoen arropak konpondu ziren, inauterien aitzinetik Mairu mozorroaren ikastaroa egin zen, Irungo Harrera Sarearentzat hainbat janzki egin ziren eta Sanferminen aitzinetik ere, Ezpatadantzarien arropa tailerra egin zen.



LOURDES MACICIOR, Beti Gazte Joskintza Taldeko partaidea

2022-2023 ikasturtean joskintza lan aunitz egin dituzte Beti Gazteko jostunek: **“ogia sartzeko poltsa, bidaietan zapatak sartzeko bertze poltsa bat, sukaldatzeko mantalak...”**. Baina Lourdesi, egindako lan guztien artean, **“baserritar jantzia”** izan da gehien gustatu zaiona, hainbatek egin omen zituzten eta **“bikainak”** gelditu ziren.

Hiru joskintza taldetan banaturik ikasten dute, baina maiz elkartzeko aukera izaten dute irekiak diren tailerretan zein taldekoek egiten dituzten berendu eta afaritan. Taldeko giroa da Maciciorek gehien estimatzen duena. Izan ere, **“giro zoragarria dago. Josketa ikasteaz gain hagitz giro goxoa”** dute **“eta irri anitz egiten”** dute.

Lourdesi bere arropari **“aldaketak egitea gustatzen”** zaio, baita **“oinarrizko joskintza ikastea ere: galtzei luzera moztea, pintzak hartzea...”**. Beraz, aukera izatekotan taldearekin jarraitzea gustatuko litzaioke.



IRAKURKETA TALDEA

Beti Gazteko irakurketa taldea bizi handiko taldea da. Hilabetero liburu bat irakurri eta honen inguruko solasaldia izateaz gain, ekitaldiz beteriko urtea izaten dute. Taldearen helburua egungo pentsamolde ezberdinak eta inguruaren ezagutza eta hausnarketa sustatzea izanik, liburuak irakurtzeaz gain, egungo filmak ikusi, hitzaldiak entzun eta irteera kulturalak egitea izaten dira urtean zehar duten aktibitate nagusia.

Hauek dira azken sei hilabeteetan antolatutako ekitaldiak: otsailean “Alcarràs” filmaren zineforuma, martxoan “Eritzen duten emozioak” hitzaldia, apirilean “Cinco lobitos” filmaren zineforuma eta Iruñeara irteera kulturala, abuztuan Bertizera irteera, irailean Burgoseko Merindadeetara irteera eta “Pan de limón con semillas de amapola” filmaren zineforuma. 2023-2024 kurtsoan “Punta Albatros”, “Encuentro con Margarita Leoz”, “Últimas tardes con Teresa”, “La hija oscura”, “Los restos del día”, “El hijo del acordeonista”, “Cinco panes de cebada”, “Suite francesa” eta “Cinco novelas cortas” liburuak irakurriko dituzte.



PEPITA ZUBILLAGA, irakurketa taldeko partaidea

“**Haurrak bezala, irailan hasten**” dute kurtsoa eta “**hilabetero liburu bat irakurtzen**” dute. “**Panza de burro, Seda, La novela de Rebeca, Última tarde con Rebeca**”... dira kurtsoan zehar irakurri dituzten liburu batzuk.

Pepita Zubillaga irakurketa taldeko partaidea da eta antolatzen diren ekintzetan parte hartzea gustatzen zaio. Udan oporrak hartu ondotik, “**udazkenean berriro hasteko asmoa**” dute: “**liburuak irakurri eta komentatu, pelikulak ikusi, hitzaldiak...**”. Denetik egitea aurreikusia dute.

Apirilean Iruñara irteera antolatu zuten. “**Alde zaharra, harresiak, zitudela...**”, leku guzietatik ibili ziren. “**Andoni Esparza izan**” zuten gidari eta “**armarri aunitz ikusteko aukera eman**” zien. “**Hagitz ongi antolatua zegoen bidaia eta denak ezagunak**” zirenez, hagitz gustura pasatu zuten eguna.



BETI GAZTE KANTARI

Beti Gazte Kantari taldea hilabetean bi aldiz, ortzegun arratsaldetan, elkartzen da euskara zein gazteleraz kantu zaharrak ikasteko. Urtean zehar hainbat emanaldi eskaintzen dituzte Lesakan eta inguruko herrietan. Egindako azken irteerak Agerra eta Illekuetako bestetara izan dira.



BIXENTA FERRERO, Beti Gazte Kantariko taldekidea



Ferrerok denbora darama Beti Gazte Kantariko taldekidea izaten. Hilabetean bi ortzegun arratsaldetan entseatzen dute eta noizean behin emanaldiren bat ere eskaintzen dute.

Taldekideen artean “**ongi moldatzen**” dira eta “**kantak ikasten ere ederki moldatzen**” dira.

Hogeita hamar bat lagun biltzen dira kantuak ikasi eta kantatzeko. Taldekidea izateko bakoitzak bere arrazoiak baditu ere, Bixentarentzat “**kantatzea atsegin**” izatea eta gainontzekoekin “**momentu onak pasa eta gustura**” aritzea dira arrazoi nagusiak.

BETI JAUZI, BORTZIRIAK DANTZAN

Beti Jauzi muxiko dantza taldeak Bortziriak Dantzan ekimenean parte hartzen jarraitzen du.

Pasa den apirilaren 22an Lesakan izan zuten saioa eta hainbat dantzarik parte hartu zuten. Muxikoak eta bertzelako dantzak dantzatu zituzten Harriondoa kanpoan, Jeiki Hadi taldearen musikaz lagunduak.

Aupa ekipo!



MODESTO MAIA ETA LOURDES DANBORIENA, ZUZENDARITZA BATZORDEKO KIDE OHIAK ETA BETI GAZTEZALE AMORRATUAK

Beti Gazte: Nola aurkeztuko zinateke ezagutzen ez zaituen norbaiti?

MODESTO: Lesakarra, herria maite duena eta Beti Gaztezaile porrakatua.

LOURDES: Beti Gazterekin lotura handia duen beratarra.

BG: Zer da Beti Gazte zuretzat?

M.: Munduko Elkarterik hoberena, non gustura parte hartu ahal izan dudan ia nere bizitza guzian, eta kultura eta kirol arloetan lesakar guzian alde jarduerak eta ekitaldiak antolatu ahal izan ditugun. Nere etxea ere bada.

L.: Lesakarentzat hagitz klub garrantzitsua da, gai asko biltzen ditu eta umeetatik hasi eta 3. adinekoak arte martxan jartzen ditu.

BG: Zein izan da zure ibilbidea Beti Gazten?

M.: Gaztetik hasi nintzen laguntzen eta ia denetarik egiteko aukera izan dut. Hasieran futboleko jokalaria gisa eta gero futboleko entrenatzaile eta sokatirako sasientrenatzaile aritu nintze. Duela urte batzuetatik Zuzendaritza Batzordean aritu naiz, idazkari lanetan, baina mota guzietako lanak egin ditut.

L.: 2014an sartu nintzen idazkari gisa, Modesto Maiari laguntzeko, berak 75. urteurrena antolatu behar baitzuen, eta 2023ra arte egon naiz.



BG: Zuzendaritza atera ondotik, aisa betetzen dituzu elkarteari eskainitako lan-ordu guziak?

M.: Beno, lasaitasun pixka bat nabaritzen dut, baina ongi moldatzen naiz eta ez dut aspertzeko astirik.

L.: Egia esan, elkarteak denbora asko hartzen zidan, baina oso aktiboa naizenez, ez naiz aspertzen.

BG: Klubarekin parte hartzen segitzen duzu?

M.: Bai, eta ahal dudan artean zerbaiterako behar banaute hortxe egonen naiz laguntzeko prest.

L.: Zalantzarik gabe, eta behar den guztian laguntzen jarraitzeko prest.



ELKARRIZKETAK

BETI GAZTE ALDIZKARIA - IRAILA 23'



BG: Elkartetik gordetzen duzun oroitzenen onena...

M.: Aunitz ditut. Alde batetik Juntakideekin izan dugun giro paregabea. Bertzetik, jokalar bezala Preferentera lehen aldiz igan ginenekoa, Gasteiztik bueltan herriak egin zigun harrera, musika banda eta guzi. Gainera, 75. urteurrenaren ospakizun ekitaldiak, sokatirakoek eskaini dizkiguten txapelak, futbol taldea 3. mailara igo zenekoa...

L.: Oroitzapen asko eta politak ditut, baina garrantzitsuena zuzendaritza-batzordeko kideek sortutako giro osasuntsua, erraza, naturala eta familiarra da.

BG: Nola ikusten duzu elkartearen etorkizuna?

M.: Ongi, bermatua. Baina bazkideek gehixeago inplikatu beharko lukete. Zuzendaritzako kideek babesa sumatu behar dute.

L.: Oso itxura ona du, batzorde berriak gaztetasuna, gaitasuna eta lanerako gogo baititu.

BG: Zuzendaritza-kide berriei aholkuren bat:

M.: Deus gutti erraten ahal diet, berriak gu baino hobekiago prestatuta baitaude. Gogoarekin ikusten ditut eta iruditzen zait Beti Gaztek engantxatuko dituela, niri behinik behin hala pasatu zitzaidan.

L.: Lan handia bada ere, ez dezatela horrela hartu, alde aberasgarria eta positiboa kontuan hartu dezatela, bai norberarentzat, bai Lesakarentzat.

BBG: Zerbat gehitzeko...

M.: Bazkideei erranen nieke elkartea denok osatzen dugula, 1.500 baino gehiago garela eta denok pixka bat lagundu beharko genukeela ahal dugun neurrian, Zuzendaritza bakarrik utzi gabe. Eta amaitzeko, beti bezala, **AUPA BETI GAZTE!!**

L.: Bai, inoiz ez nuela imaginatu Beti Gaztek hainbertze bilduko zuenik, eta penarenbat badut, lehenago ez sartu izana da. Beti Gaztek konkistatu nau. **GORA BETI GAZTE!!**



HURRENGO EKITALDIAK

BETI GAZTE ALDIZKARIA - IRAILA 23'

URRIA

Argazki Lehiaketako deialdia
Ogi Tailerra
Ipuin Lehiaketako deialdia
Lesakako Bitxikeriak Lehiaketa


AZAROA

Artikutzara irteera
Argazki Lehiaketako sari banaketa
Argazki Lehiatako erakusketa
Ajoarriero txapelketa
BG Kantari taldearen emanaldia

ABENDUA

Ipuin Lehiaketako sari banaketa
Mendizaleen Eguna
Elutxara mendi Irteera
Aiako Harrietara mendi irteera
Bianditzera mendi irteera

LAGUNTZAILEAK



LESAKAKO ZERBITZUEN
ELKARTEA



ArcelorMittal



ALZUGARAI S.L.U.



Errekako nekazal etxea



sasoi
eraikuntzak



Transgoyeneche SL
TRANSFENNICA



Aldizkariko argazkiak: Aitor Arotzena, Pako Santxez, Argazki Rally-a, Xabier Ariztegi, Fred Ramos, Paola Oskoz, Amaia Telletxea eta hainbat bazkidek bidalitakoak.



1940. urtetik
Lesakako Kirol eta Kultur Elkarteak



WWW.BETIGAZTE.NET



@BETIGAZTELESAKA



@BETIGAZTELESAKA



696 80 98 86



BETI GAZTE

EGIN ZAITEZ BAZKIDE! ¡HAZTE SOCIO!



Bete eskaera-inprimakia eta
elkarteari helarazi



Egoitzan, **astelehenera** 19:00etatik 20:30etara

Mastegi pareko lokalean, **asteazkenetan**
18:00etatik 19:30etara



Web orrialdean inprimakia deskargatu, bete eta
betigazte@betigazte.net posta elektronikora bidali.



www.betigazte.net



Mugikorreko kamararekin enfokatu
Enfoca esto con la cámara de tu móvil

